



. Gure enpresak bezeroekiko harreman pertsonalak eta baita automatizatuak izango ditu, hau da; arazo baten aurrean edo zalantza bat izanez gero aukera posible bat baino gehiago izango du bezeroak honako hau zuzendu edo argitzeko.

Alde batetik, aplikazioan bertan "laguntza" botoia egongo da. Hau sakatzean, aplikazioa funtzionatzeko egin beharreko pausoak agertuko dira. Gainera, arazo batzuen aurrean egin ahalko dituzun pausoak ere jarriko ditugu bertan eta aplikazioan aldaketak egiteko aukera ere egongo da, hala nola; aplikazioan kolorea aldatu, aplikazioan duzun izena aldatu, pasahitza aldatu...

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Honetaz gain, telefono zenbaki bat ipiniko dugu aplikazioan bertan, gurekin kontaktatu ahal izateko eta guk telefono bidez bezeroei lagundu ahal izateko. Gainera, korreo elektronikoa ere izango dugu, bezeroak guri zuzenean idatzi ahal izateko eta ahal bezain laster gure erantzuna jasoko dute korreo elektronikoa honen bitartez.